2018ko EKAINAREN 13ko UDALBATZARRA

PLENO DE 13 DE JUNIO DE 2018

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDE: JOSU IRATZOKI AGIRRE

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:
Mª ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO, AITOR ELEXPURU EGAÑA, MIKEL LERTXUNDI KORTA, AITOR IANTZI GOIENETXE, GERMAN CASTILLO LAZCANOTEGUI, JOSE MIGUEL GORRIA VICUÑA, JOSE ANTONIO OYARZABAL IRIBAS, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:
IXONE TELLECHEA URANGA (bilera / reunión), RAQUEL QUIROGA TAPIA.

Tokia: BERAko Herriko Etxea
Eguna: 2018-06-13
Ordua: 19:30
Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA
Día: 13-06-2018
Hora: 19:30
Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

TRATATZEKO GAIAK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

2018.eko maiatzaren 9an egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.

Vista el acta de la sesión celebrada el día 9 de mayo de 2018, por unanimidad SE APRUEBA.

2.- A291 ETA A292 JARDUKETA ASISTEMATIKOETAN (3. P, 291. eta 292. L; SAN ESTEBAN 2) HIRI-JARDUKETAKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONESPENAREN TESTU BATEGINA (BERAKO UDAL PLAN OROKORRA ALDATZEN DUENA) ONESTEA.

2.- APROBACIÓN TEXTO REFUNDIDO MODIFICACIÓN DEFINITIVA PLAN ESPECIAL DE ACTUACIÓN URBANA, ACTUACIONES ASISTEMATICAS A291 Y A292 (P. 3, p. 291 y 292; SAN ESTEBAN 2), MODIFICACIÓN DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL DE BERA.

*Idazkariak gaia azaldu du eta, aho batez,*

*La Secretaria explica el tema y, por unani-*

*honako erabakia hartu dute:*

Ikusirik, A291 eta A292 Jarduketa Asistematikoetan (3. poligonoko 291. eta 292. lur-zatiak; San Esteban karrika 2) Hiri-Jarduketako Plan Bereziaren espedientea, Berako Udal Plan Orokorra aldatzen duena, PROMOCIONES TABLAJEROBAITA SL-k sustatua.

Dokumentazioa: Testu Bategina, Plan Especial Actuación Urbana A291/A292, parcela 291/292, polígono 3, Bera Bidasoa, -------------------- arkitektoak egina.

2017ko urriaren 4an Udalak eginiko Osoko bilkuran, A291 eta A292 Jarduketa Asistematikoetan (3. poligonoko 291. eta 292. lur-zatiak; San Esteban karrika 2) Hiri-Jarduketako Plan Berezia, Berako Udal Plan Orokorra aldatzen zuena, PROMOCIONES TABLAJEROBAITA SL-k sustatua, behin betiko onestea erabaki zuen, honako oharren arabera:

*"1.1) 2017ko irailaren 1ean Nafarroako Gobernuaren Ondare Historikoaren Zerbitzuak eginiko txostenean jarritako oharrak orain onartzen den arautegian sartu behar ditu. Txosten horren kopia erabaki honekin batera jakinaraziko zaio.*

*1.2) Orain onartutako hirigintza arautegia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ahal izateko, hilabete bateko epean, testu bategina aurkeztu beharko du non behin betiko onespen honen arauak eta ohar guztiak sartuko diren."*

2018ko apirilaren 12an Promociones Tablajerobaitak lehen aipatu den Testu Bategina aurkeztu du.

Ikusirik, honi buruz Nasuvinsak eginiko txostena 2018ko maiatzaren 31koa.

ERABAKI DUTE:

*midad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Visto expediente del Plan Especial de Actuación Urbana en las Actuaciones Asistemáticas A291 y A292 (parcelas 291 y 292 del polígono 3; San Esteban karrika 2), modificación del Plan General Municipal de Bera, promovido por PROMOCIONES TABLAJEROBAITA SL.

Documentación: Texto Refundido del Plan Especial de Actuación Urbana, A291/A292, parcela 291/292, polígono 3, Bera Bidasoa, redactado por el arquitecto --------------------.

En el Pleno celebrado el 4 de octubre de 2017 el Ayuntamiento aprobó definitivamente el Plan Especial de Actuación Urbana en las Actuaciones Asistemáticas A291 y A292 (parcelas 291 y 292 del polígono 3; San Esteban karrika 2), modificación del Plan General Municipal de Bera, promovido por PROMOCIONES TABLAJEROBAITA SL, según las siguientes condiciones:

*"1.1) Deberá incluir en la normativa aprobada las indicaciones establecidas en el informe del Servicio de Patrimonio Histórico del Gobierno de Navarra de fecha 1 de septiembre de 2017, cuya copia se notifica con este acuerdo.*

*1.2) Para la publicación en el Boletín Oficial de Navarra de las normas urbanísticas aprobadas deberá presentar en este Ayuntamiento, en el plazo de 1 mes, un texto refundido que recoja todas las determinaciones de esta aprobación definitiva."*

Con fecha 12 de abril de 2018, Promociones Tablajerobaita ha presentado el Texto Refundido reseñado anteriormente.

Visto informe emitido al respecto por Nasuvinsa de fecha 31 de mayo de 2018.

SE ACUERDA:

1) Aprobar el Texto Refundido del Plan Espe-

1) A291 eta A292 Jarduketa Asistematikoetan (3. poligonoko 291. eta 292. lur-zatiak; San Esteban karrika 2) Hiri-Jarduketako Plan Bereziaren Testu Bategina, Berako Udal Plan Orokorra aldatzen duena, PROMOCIONES TABLAJEROBAITA SL-k sustatua eta lehen adierazitakoa, onestea.

2) Onartutako testu bategin hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behar diren ondorioetarako.

3) Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.

4) Erabaki hau nahiz onartutako Udal Hiri-Jarduketako Plan Berezi honen testu bateginaren ale bat Nafarroako Gobernuko Lurralde eta Paisaia Zerbitzuari bidaltzea.

cial de Actuación Urbana en las Actuaciones Asistemáticas A291 y A292 (parcelas 291 y 292 del polígono 3; San Esteban karrika 2), modificación del Plan General Municipal de Bera, promovido por PROMOCIONES TABLAJEROBAITA SL, antes reseñado.

2) Publicar el texto refundido, ahora aprobado, en el Boletín Oficial de Navarra a los efectos oportunos.

3) Notificar este acuerdo a la parte interesada.

4) Trasladar este acuerdo junto con un ejemplar del texto refundido aprobado al Servicio de Territorio y Paisaje del Gobierno de Navarra.

3.- “BELAUNALDI BERRIKO BANDA ZABALERAKO SARBIDE SAREAK HEDATZEKO AZPIEGITURA PASIBOEN ARLOKO INBERTSIOEN PROGRAMAREN” BARRENEAN DAGOEN, “BERAKO ADARRARI” DAGOKION INBERTSIOARI UKO EGITEA.

*Alkateak gaia azaldu eta Idazkariak prozedura. Horren ondotik, aho batez, honako erabakia hartu dute:*

Uztailaren 13ko 306/2017 Toki Administrazio Zuzendari Nagusiak emandako Ebazpenaren bidez, 2017-2019 aldirako Toki inbertsioen Planean, “Belaunaldi berriko banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko azpiegitura pasiboen arloko inbertsioaren programaren” barrenean Berako Udalari dagokion “Berako adarra” izeneko inbertsioa, besteen artean, onetsi zuen.

Aipatu 306/2017 Toki Administrazio Zuzendari Nagusiaren Ebazpenaren 4. puntuari

3.- RENUNCIA A LA INVERSION “RAMAL DE BERA” DENTRO DEL PROGRAMA DE INVERSIONES EN INFRAESTRUCTURAS PASIVAS DESTINADAS AL DESPLIEGUE DE REDES DE ACCESO DE BANDA ANCHA DE NUEVA GENERACION (NGA).

*El Alcalde explica el asunto y la Secretaria el procedimiento. Tras ello, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Por Resolución 306/2017, de 13 de julio, del Director General de Administración Local se aprobó, entre otras, la inversión financiable en el Plan de Inversiones Locales 2017-2019, denominada “Ramal de Bera” dentro del apartado de Programas de Inversiones en infraestructuras pasivas destinadas al despliegue de redes de acceso de banda ancha de nueva generación (NGA).

De conformidad con el punto 4º de la citada Resolución 306/2017 del Director General de

jarraikiz, 2017rako eta 2018rako inbertsioak jasotzen dituen toki entitateek, ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta lau hilabeteko epean, abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen IV. Eranskineko 4. atalean adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko zuten. 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen du Foru Lege horrek.

Administración Local, las entidades locales con inversiones en el 2017 y 2018, debían presentar en el plazo de cuatro meses a partir de la publicación en el Boletín Oficial de Navarra de la presente Resolución, la documentación señalada en el número 4 del Anexo IV de la Ley Foral 18/2016, de 13 de diciembre, reguladora del Plan de Inversiones Locales 2017-2019.

18/2016 Foru Legearen IV. eranskineko 4. atalean adierazitako dokumentazioa, Udalak Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuaren Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiari bidali zion 2017ko azaroaren 27an eta 2018ko urtarrilaren 12an.

La documentación señalada en el número 4 del Anexo IV de la Ley Foral 18/2016, fue remitida por el Ayuntamiento a la Dirección General de Administración Local del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra con fecha 27 de noviembre de 2017 y 12 de enero de 2018

Otsailaren 28ko 81/2018 Toki Administrazio Zuzendari Nagusiak emandako Ebazpenaren bidez aurrekontua finkatu eta, behin behinekoz, ezarri zen 2017-2019 eperako Toki Inbertsioen Planaren kargura egin daitekeen gehieneko ekarpen ekonomikoa.

Por Resolución del Director General de Administración Local 81/2018, de 28 de febrero, se fijó el presupuesto y se estableció, con carácter provisional, la aportación económica máxima con cargo al Plan de Inversiones Locales 2017-2019.

Ez geroztik, Nafarroako Gobernuak banda zabala hedatzeko lanak egin ditu herriraino. Beraz, Berako herrian operadoreak instalatzeko errazteko inbertsioa egitea ez da beharrezkoa.

Posteriormente, el Gobierno de Navarra ha llevado a cabo el despliegue de banda ancha en el municipio por lo que ya no es necesaria la realización de esta inversión para facilitar la instalación de operadores en Bera.

Hori dela eta, ERABAKI DUTE:

Por ello, SE ACUERDA:

1) “Belaunaldi berriko banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko azpiegitura pasiboen arloko inbertsioaren programaren” barrenean Berako Udalari dagokion “Berako adarra” izeneko inbertsioa egiteari uko egitea.

1) Renunciar a la ejecución de la inversión denominada “Ramal de Bera” dentro del Programa de Inversiones en infraestructuras pasivas destinadas al despliegue de redes de acceso de banda ancha de nueva generación (NGA)”.

2) Erabaki hau Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuaren Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiari bidaltzea, behar diren ondorioetarako.

2) Remitir este acuerdo a la Dirección General de Administración Local del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra, a los efectos oportunos.

4.- GASTUAREN ARAUA BETETZEKO 2018KO PLAN EKONOMIKO FINANTZARIOAREN ZUZENKETA ONESTEA

4.- APROBACIÓN MODIFICACIÓN DEL PLAN ECONÓMICO-FINANCIERO 2018 A LOS EFECTOS DEL CUMPLIMIENTO DE

LA REGLA DEL GASTO.

*Idazkariak gaia azaldu eta gero, aho batez, honako erabakia hartu dute:*

*La Secretaria explica el asunto y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Joan den apirilaren 11n Udalak eginiko osoko bilkuran Gastuaren araua betetzeko 2018ko Plan ekonomiko finantzarioa onestu zuen.

En el Pleno celebrado por el Ayuntamiento el pasado 11 de abril se aprobó el Plan económico-financiero 2018 a los efectos del cumplimiento de la regla del gasto.

Plan ekonomiko finantzario hau Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentura bidali zen eta, hortik, onartutako Plan ekonomiko finantzarioa zuzendu behar zela jakinarazi diote Udalari.

Este Plan económico-financiero se remitió al Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local y, desde allí, se le ha hecho saber al Ayuntamiento que dicho Plan económico-financiero debe ser corregido.

Hori dela eta, Plan ekonomiko finantzario zuzendua onartu behar da.

Por lo que debe ser aprobado otro Plan económico-financiero.

Ikusirik, 2018ko maiatzaren 29an Udal kontuhartzaileak eginiko Gastuaren araua betetzeko 2018ko Plan Ekonomiko Finantzarioa.

Visto Plan Económico-Financiero 2018 a los efectos del cumplimiento de la regla del gasto, realizado por la Interventora de fecha 29 de mayo de 2018.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 21. eta 23. artikuluei jarraikiz zein Aurrekontu Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuaren 26. artikuluan aurreikusitakoa bete beharrez,

De conformidad con el artículo 21 y 23 de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera y en cumplimiento del artículo 26 del Real Decreto 1463/2007, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley 18/2001, de 12 de diciembre, de estabilidad presupuestaria.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) 2018ko maiatzaren 29an Udal kontuhartzaileak eginiko Gastuaren araua betetzeko 2018ko Plan Ekonomiko Finantzarioa onestea.

1) Aprobar el Plan Económico-Financiero 2018 a los efectos del cumplimiento de la regla del gasto, realizado por la Interventora de fecha 29 de mayo de 2018.

2) Informazio ondorioetarako soilik:
2.1) Erabakitako onespena jendaurrean jartzea, ediktua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaraturik.

2) A efectos exclusivamente informativos:
2.1) Someter la aprobación acordada a información pública con publicación de edicto en el Boletín Oficial de Navarra.

2.2) Plan ekonomiko finantzarioaren kopia bat jendearen eskuetan jartzea, Udalbatzak onetsi duenetik, eta hala egonen da harik eta planaren indarraldia bukatu arte.

2.2) Poner a disposición del público una copia del plan económico financiero desde su aprobación por el Pleno del Ayuntamiento, hasta la finalización de la vigencia del propio plan.

3) Erabaki hau eta orain onetsi den 2018ko Plan Ekonomiko Finantzarioarekin batera Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuaren Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiari bidaltzea, behar diren ondorioetarako.

3) Remitir este acuerdo junto con el Plan Económico-Financiero 2018, ahora aprobado, a la Dirección General de Administración Local del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra, a los efectos oportunos.

5.- KATASTROAREN ALDAKETA: 4. POLIGONOKO 206. LURZATI PARTIKULARRA (BEOLA BENTA) ETA 17. UDAL LURZATIA (IBARDIN).

5.- MODIFICACIÓN CATASTRAL: PARCELA PARTICULAR (VENTA BEOLA) 206 Y PARCELA MUNICIPAL 17 DEL POLÍGONO 4 (IBARDIN).

*Alkateak gaia azaldu du eta Idazkariak prozedura. Horren ondotik, aho batez, honako erabakia hartu dute:*

*El Alcalde explica el tema y la Secretaria el procedimiento. Seguidamente, por unanimidad, adoptan el siguiente asunto:*

Ikusirik, Catastros-Estudio 5 s.l. enpresako teknikoak (katastrokoa) 2018ko apirilaren 30ean eginiko txostena non aipatzen duen Beola Benta ez dagoela ongi kokatua katastroan, beraz, katastroko kokapenak bat egiteko eraikiak benetan okupatzen duenarekin, 4. poligonoko partikularra den 206. lur-zatiko, (Beola Venta) eta udal lur-zatia den 17.eko mugak zuzendu behar direla.

Visto informe del técnico de catastro de la empresa Catastros-Estudio 5 s.l., de fecha 30 de abril de 2018, en el que indica que la Venta Beola no está bien reflejada en catastro, por lo que para que la delimitación catastral refleje una delimitación concordante con la ocupación real de la construcción deben corregirse las delimitaciones de la parcela particular 206, particular (Venta Beola), y la parcela 17, municipal, del polígono 4.

Kontuan hartuz, lehen aipatu txostenari jarraikiz, egokitze horretan Udalarena den 4. poligonoko 17. lur-zatiari, ukitzen diola.

Teniendo en cuenta que con esta corrección se ve afectada la parcela 17 del polígono 4 de titularidad municipal, según consta en el informe antes citado.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) 2018ko apirilaren 30ean eginiko txostenean katastroaren teknikoak proposatutako katastroaren aldaketa, 4. poligonoko 17. udal lurzatiari dagokiona, onestea.

1) Aprobar la modificación catastral propuesta por el técnico de catastro en el informe de 30 de abril de 2018, correspondiente a la parcela municipal 17 del polígono 4.

2) Erabaki hau Nafarroako Gobernuaren Lu-

2) Remitir este acuerdo al Servicio de Riqueza

rraldearen Aberastasunaren Zerbitzura bidaltzea behar diren ondorioetarako.

Territorial del Gobierno de Navarra, a los efectos oportunos.

6.- HERRI LURRAK EKOLOGIKOAN: NNPEK-N SARTZEA.

6.- COMUNALES EN ECOLOGICO: SOLICITUD ALTA EN CPAEN.

*Alkateak gaia azaldu du eta Idazkariak erabaki behar diren puntuak irakurri. Horren ondoren, aho batez, honako erabakia hartu dute:*

*El Alcalde explica el asunto y la Secretaria lee los puntos a aprobar. Tras ello, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Berako Udalak 2016ko martxoko Osoko bilkuran transgenikorik gabeko zonaldea izendatu zuen Berako udalerria.

En Marzo de 2016 el Ayuntamiento de Bera declaró el municipio zona libre de transgénicos.

Mozio horretan aipatzen ziren puntuen artean, Udalaren menpean dauden arlo eta guneetan (parkeak, lorategiak, herriko baratzeak, karretera eta bideak mantentzea…) glifosatoa erabiltzeari uztea aipatzen zen eta baita produkzio ekologikoa bultzatzea nahiz Udalaren eskuetan dauden establezimenduetan eta jardunetan (eskola, erresidentziak, administrazio publikoa, bestak eta ospakizunak, jantoki sozialak etab.) produktu ekologikoak eta gehien bat bertakoak kontsumitzekoaren aldeko apustua egitea.

En los puntos de esta moción se hablaba de prohibir el uso del glifosato en las áreas dependientes del Ayuntamiento como jardines, parques, huertas, etc. y, también, de fomentar la producción y consumo de productos ecológicos y a poder ser de cercanía desde el Ayuntamiento por medio de comedores escolares, residencias, en fiestas…

Bide horretan Udalak jadanik pausu batzuek eman ditu, lorezaintzako lanetan glifosatorik ez erabiltzea, adibidez, edo Udalak esku hartzea duen jantokietan produktu ekologikoak erabiltzen hastea, Zahar etxean adibidez.

El Ayuntamiento ya ha dado algunos pasos en este sentido como por ejemplo no usar glifosato en el mantenimiento de zonas verdes y comprar productos ecológicos y de cercanía en comedores en los que el Ayuntamiento esta implicado como en el caso de la Residencia.

Oraingoan bertze pausu bat ematea proposatzen da, hain zuzen ere, Berako herri lurrak modu ekologikoan kudeatzeko konpromezua hartzea.

Ahora, por medio de esta moción se propone dar otro paso en este sentido y asumir el compromiso de gestionar los terrenos comunales de Bera de forma ecológica.

Berako Udaleko herri lurren artean daude ohianak eta mendiko larreak. Hauetan, normalean, ez da tratamendu kimiko berezirik egiten eta beraz ekologikoki erabiltzen direla erran daite-

Dentro de estos comunales encontramos bosques y pastizales de montaña. En estas zonas, normalmente, no se hacen tratamientos químicos y se puede decir que cumplen las

ke.

Hemendik antzinera, Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluarekin elkarlanean herri lur hauek ekologikoki erabiltzen direla bermatuko da.

Neurri honek ez die eragingo Berako abeltzainek, jadanik, erabiltzen dituzten luberri, irazelaiei edo bertze herri lurrei, baina, hemendik antzinera, esleitzen diren herri lurrak produkzio ekologikoak jarritako neurriak errespetatuz erabili beharko dira.

Ikusten ari gara, egunetik egunera, gure ingurua kutsatuagoa dagoela eta ingurunean aurkitzen den kutsadura hori azkenean guregana heldu dela elikagaien bidez.

Behar beharrezkoa da gure ingurunea pozoitzen ez segitzea eta bere osasuna zaintzea, bidenabar, gurea zaintzen ari garelako eta horretarako produkzio ekologikoak jartzen dituen irizpideak errespetatzea garrantzitsua iruditzen zaigu bertzeren artean.

Gauzak horrela, Berako Udalak honakoa ADOSTEN DU:

1. Berako herri lurretan produkzio ekologikoak baimendutako tratamentuak bertzerik ez direla eginen.

2. Hemendik antzinera, esleitzen diren herri lurretan, lur hauen esleipena jasotzen duenak, hauek modu ekologikoan lantzeko baldintza bete behar izatea eta konpromezua hartzea.

3. Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluan ekoizle begetal gisa alta emateko eskaera egitea eta ondoko ordezkari izendatzea:
- Kontrol ordezkaria: Urtzi Garaita Arza, Udal mendizaina.
- Sustapen ordezkaria: Josu Iratzoki Agirre, Alkatea.
- Kontabilitateko ordezkaria: Mª Dolores Oyarzabal Zubieta, Udal kontuhartzailea.

condiciones para que sean ecológicos.

De aquí en adelante, se certificará con la colaboración del Consejo de la Producción Agraria Ecológica de Navarra que los comunales se usan de modo ecológico.

Esta medida no incluirá los pastizales, helechales o demás comunales adjudicados hasta la fecha pero, de aquí en adelante, para las nuevas concesiones de comunales será requisito que estos se manejen según las normas de la producción ecológica.

Vemos como cada día nuestro entorno esta más contaminado y ésta contaminación acaba afectándonos por medio de los alimentos que ingerimos.

Es imprescindible no seguir contaminando nuestro entorno y cuidar su salud porque esto nos afecta directamente. Para ello, nos parece muy importante seguir las directrices que marca la producción ecológica, entre otras cosas.

En esta línea el Ayuntamiento de Bera ACUERDA:

1. Que en los comunales de Bera solo se realizarán tratamientos permitidos por la producción ecológica.

2. En los comunales que se adjudiquen desde esta fecha se darán con la condición de que se manejen de forma ecológica.

3. Solicitar el alta en el Consejo de Producción Agraria Ecológica (CPAEN) como productor vegetal y nombrar representantes a las siguientes personas:
- Representante de control: Urtzi Garaita Arza guardamontes municipal
- Representante de promoción: Josu Iratzoki Agirre, Alcalde.
- Representante de contabilidad: Mª Dolores Oyarzabal Zubieta, Interventora municipal.

4. Erabaki hauen berri herritarrei ematea.

4. Informar a los vecinos y vecinas del acuerdo adoptado.

7.- ALTSASUKO GAZTEEN KONTRAKO SALBUESPENEZKO EPAIKETA ETA SENTENTZIA SALATZEA.

*Alkateak testua irakurri du eta honako adierazpenak egin dituzte:*

*Josu Iratzoki Agirre, Alkeateak:*
*Terrorismo bezala ez dute sailkatu baina kondenak ikaragarriak izan dira, ezin da ulertu.*

*Juan Losa Ocariz, zinegotziak:*
*Aurreko bileran erran zuen ez zituela ulertzen gasteak, buruz gaixorik egon behar direla, kondenarekin haien bizitza izorratu dute eta pena ematen dio.*
*Udalak ez du inoiz era kaltetuei babesa eman eta orian aurpegia nahi die garbitu besteei.*

*(German Castillo zinegotzia atera da une batean parte-hartze honen bukaeran)*

*German Castillo Lazcanotegui, zinegotziak:*
*Juan Losari oroitarazi dio La Linea de la Concepcionen gertatutakoa, eraso zituzten guardia zibilak zirela zekitelako eta kalean daude. Justizia bera baino inputatu guztiak kalean.*

*Josu Iratzoki Agirre, Alkateak:*
*Justiziak ez die denei tratu bera ematen.*

*Aitor Elexpuru Egaña, zinegotziak:*
*Proportzionalitatea eskatzen ari da ez inpunitaterik.*

*Horren ondotik, bozketa egin dute honako emaitza izanik:*
*Aldeko botoak: 8 (4 EH Bildu eta 4 Herrirako)*
*Aurkako botoak: 1 (UPN)*

7.- DENUNCIA DEL JUICIO Y LA SENTENCIA EXCEPCIONALES CONTRA LOS JÓVENES DE ALTSASU.

*El Alcalde lee el texto y se producen las siguientes manifestaciones:*

*Josu Iratzoki Agirre, Alcalde:*
*No han calificado como terrorismo pero las condenas son descomunales, no se puede entender.*

*Juan Losa Ocariz, concejal:*
*Ya dijo en la anterior reunión que no entendía a estos jóvenes, que deben estar mentalmente enfermos, con esta condena han destrozado su vida, le entristece.*
*El Ayuntamiento no ha apoyado nunca a los agredidos y, ahora, quiere lavar la cara a los otros.*

*(El concejal German Castillo se ha ausentado un momento al final de esta intervención)*

*German Castillo Lazcanotegui, concejal:*
*Le recuerda a Juan Losa lo ocurrido en la Línea de la Concepción, les agredieron porque sabían que eran guardias civiles. La misma Justicia pero todos los imputados en la calle.*

*Josu Iratzoki Agirre, Alcalde:*
*La Justicia no trata a todos igual.*

*Aitor Elexpuru Egaña:*
*Se pide proporcionalidad no impunidad.*

*Tras lo anterior, se realiza la votación con el siguiente resultado:*
*Votos a favor: 8 (4 EH Bildu y 4 Herrirako)*
*Votos en contra: 1 (UPN)*

*Beraz, mozioa onartu dute honako testua izanik:*

*Por lo que la moción se aprueba, siendo el texto el siguiente:*

Auzitegi Nazionalak, salbuezpenezko epaitegiak, beste behin ere agerian utzi du jatorritik duen funtzio errepresiboa Altsasuko 8 gazteren kontra egindako sententziarekin. Epaileak 2 eta 13 urte bitarteko kartzela zigorrak ezarri dizkie gazteei, 2016ko urriaren 15ean, herriko ferietan izandako liskarrarengatik. Azkenean terrorismo deliturik ez dela egon adierazi arren, epaitegiak zigorraren astungarri moduan ezarri du auziperatuek Guardia Zibilaren kontra zuten mespretxua. Horrela, berriz ere argi geratu da Auzitegi Nazionalaren kutsu eta helburu politikoa.

El tribunal de excepción, la Audiencia Nacional, vuelve a evidenciar su función represiva condenando a 8 jóvenes de Altsasu a penas de hasta 13 años de cárcel por los sucesos ocurridos el 15 de octubre de 2016 durante las Ferias de la localidad. Aunque el tribunal no ha mantenido la tipificación de terrorismo inicial, considera agravante “*la animadversión y menosprecio de las personas acusadas hacia la Guardia Civil*”. Así, vuelve a quedar claro el cariz ideológico y de excepción de la Audiencia Nacional.

Berako udalak hasieratik gertaera hauek jaso duten trataera neurrigabea salatu nahi du beste behin ere. Gauean, festa giroan, gertatutako liskar bat, helburu politikoengatik erabili da, Altsasuko gazteria zigortzeko asmoarekin, desorosoa zaien gazteri aktibo eta mugitua zigortzeko asmoarekin. Berriki ezagutu dugun sententzia neurrigabeko bidegabekeria da Berako udalaren iritziz.

El Ayuntamiento de Bera sigue denunciando la desproporción de todo este proceso desde el inicio. Un suceso que, desde un principio, ha sido utilizado con fines políticos para castigar a la juventud de un pueblo como Altsasu, siempre activa e inquieta. La sentencia conocida recientemente es una auténtica barbaridad.

Berako udalak Altsasuko gazte, beren senitarteko, lagun eta bizilagunei elkartasuna eta babesa erakutsi nahi die albiste gogor hau ezagututa. Hilabete hauetan erakutsi duten duintasuna eredugarria da, mendeku politika, muntai polizialak eta jazarpen mediatiko kanpainak onartzen ez dituen herria direla argi utzi dute.

El Ayuntamiento de Bera quiere mostrar su apoyo y solidaridad a los jóvenes de Altsasu y también a sus familiares, amigos, amigas, vecinos y vecinas ante esta dura noticia. La dignidad con la que han actuado es ejemplo de un pueblo que no acepta políticas de venganza, montajes policías ni campañas de acoso mediático.

Berako udalak, Nafarroako gizarteak Altsasuko gazteei eta beren senitartekoei adierazitako elkartasuna eta babesa gogorarazi nahi du. Kalera irtendako herritar guztiei dei egiten die, neurrigabeko sententzia honen aurrean mobilizatzen jarraitzeko, justizia lortu arte.

Asimismo, El Ayuntamiento de Bera quiere recordar el apoyo masivo mostrado por la sociedad navarra a los jóvenes de Altsasu y sus familias e invita a todas esas personas que consideran desproporcionadas estas condenas que sigan movilizándose por conseguir que en este caso se haga de una vez justicia.

9.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

9.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

1) Bandoak: B11/2018tik B14/2018ra.

2) Ebazpenak: 2018ko maiatzaren 4ko 69. ebazpenetik 2018ko ekainarean 6ko 88.era arte.

*Idazkariak azaldu du gai zerrendatik kanpo ekartzen den gai hau jakinarazi ziotela Udalari deialdia egin ondoren eta, horregatik, ez zen gai zerrendan sartu. Beste aldetik, datorren astean erantzuna eman behar da.*

*Azaldutakoarengatik, zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa betea izanik, honako gai hau tratatu dute:*

9.- BIDASOA KARRIKAKO KANPOKO ARGITERIA PUBLIKOA BERRITZEKO EKINTZA 2014-2020 HAZKUNDE JASANGARRIKO “FEDER” PROGRAMA OPERATIBOAN PARTE HARTZEKO ESKATZEA.

*Idazkariak espedientea azaldu eta gero, honako erabakia hartu dute:*

Ikusirik, 2014-2020 hazkunde jasangarriko “FEDER” programa operatiboaren barrenean karbono gutxi duen ekonomia batera pasatzea bultzatzen duten toki entitateen proiektuetarako diru-laguntzen deialdia, ekainaren 16ko 616/2017 Errege Dekretuaren bitartez arautua.

Ikusirik, Carlos Ros Zuasti Ingeniari Industrialak egindako “Kanpoko argiteria publikoa

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

1) Bandos: del B11/2018 al B14/2018.

2) Resoluciones: De la resolución nº 69 de 4 de mayo de 2018 a la nº 88 de 6 de junio de 2018.

*La Secretaria explica que este tema que se presenta fuera del orden del día fue notificado al Ayuntamiento después de hecha la convocatoria, razón por la que no se ha incluido en la misma. Pero, por otro lado, hay que responder para la semana que viene.*

*Por lo manifestado anteriormente, fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, se trata el siguiente asunto:*

9.- SOLICITUD PARTICIPACIÓN EN EL PROGRAMA OPERATIVO FEDER DE CRECIMIENTO SOSTENIBLE 2014-2020 CON EL PROYECTO PARA RENOVACIÓN DEL ALUMBRADO PÚBLICO EXTERIOR DE LA CALLE BIDASOA.

*Tras explicar la Secretaria el expediente, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Vista la convocatoria de subvenciones a proyectos singulares de entidades locales que favorezcan el paso a una economía baja en carbono en el marco del Programa operativo FEDER de crecimiento sostenible 2014-2020, regulada mediante Real Decreto 616/2017, de 16 de junio.

Visto la Memoria “Renovación del alumbrado público exterior de la calle Bidasoa de Bera

berritzea Beran, Bidasoa Karrikan (Nafarroa)" Memoria, 2017ko uztailaren 24koa.

(Navarra)", de 24 de julio de 2017, redactado por el Ingeniero Industrial Carlos Ros Zuasti.

2017ko abuztuaren 9an Udalak aipatutako memoria gauzatzeko dirulaguntza eskatu zuen lehen adierazitako "FEDER" programa operatiboan.

El 9 de agosto de 2017 el Ayuntamiento solicitó subvención para la ejecución de la memoria antes citada dentro del Programa operativo "FEDER" más arriba reseñado.

Pasa den ekainaren 5ean IDAEtik lehen eginiko eskaera zuzentzeko errekerimendua egin dio Udalari.

Con fecha 5 de junio pasado desde IDAE se le ha hecho al Ayuntamiento un requerimiento de subsanación de la solicitud antes presentada.

Hori dela eta, errekerimendu honi erantzuna emateko,

Por ello, para dar respuesta al requerimiento realizado,

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) Aipatutako Errege Dekretuak arautako prozeduran parte hartu eta espresuki onartzea onestea.

1) Aprobar la participación y aceptación expresa del procedimiento regulado por el Real Decreto mencionado.

2) Proiektu berezi honetan dauden jarduerak eta, indarrean dagoen aurrekontuan dagoen bezala, (1 1650 60900 –Renovación alumbrado público- Kontu saila), 243.696.40 eurotako aurrekontuko diru-hornidura onestea.

2) Aprobar las actuaciones que componen el proyecto singular y la dotación presupuestaria de 243.696,40 euros para llevarla a cabo según consta en el presupuesto vigente, partida presupuestaria 1 1650 60900-Renovación alumbrado público-.

3) Burutu behar diren jardueren Memoria deskribatzailea, Carlos Ros Zuasti industria ingeniariak egina, 2017ko uztailaren 24koa, onestea. Memoria hau 2017ko abuztuaren 9an eginiko eskaerarekin batera bidali zen eta, orain, behar bezala bideratua erabaki honekin batera bidaliko da.

3) Aprobar la Memoria descriptiva de las actuaciones a acometer, redactada por el ingeniero industrial Carlos Ros Zuasti de fecha 24 de julio de 2017, presentada junto con la solicitud realizada el 9 de agosto de 2017 y que, ahora, debidamente diligenciada se remitirá junto con este acuerdo.

10.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.

Ez dira burutu.

10.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

No se producen.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:10etan.

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 20:10 horas.

O.E. ALKATEA/ V.B. EL ALCALDE
Josu Iratzoki Agirre

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta